

# Osoko bilkura

Iruñean, Udaletxean, 2017ko maiatzaren 26an.

## Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Iñigo, Andres,  
Lakarra, Joseba,  
Sagarna, Andoni,  
Salaberri, Patxi,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta  
Osa, Erramun,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorria adierazi dutenak:** Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Joan Mari Torrealdei eta Mikel Zalbide.

**Ahalak:** Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren

Azkarateri; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko maiatzaren 26an, ostiralean, 10:00etan hasi da Iruñean, Udaletxean. 11:00etan, Joseba Asiron Iruñeko alkateak harrera egiteko, bilkura eten da. Ondoren, bilkurari segida eman zaio 11:30ean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Ondoren, eguneko aztergaiak jorratu dira.

### 1. Osoko bilkurako (2017-02-24) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

A. Urrutia euskaltzainburuak galdetuta, Idazkaritzak inolako oharrik ez dela jaso adierazi du. Ondoren, bilkuran diren euskaltzainei oharrik egin nahi duten galdetuta, oharrik ez da egon. Ondorioz, otsailaren 24ko bilera-agiria onartu da.

## **2. XX. Barne Jardunaldietako (2017-03-30 eta 31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz**

X. Videgain euskaltzainak zazpigarren orrialdeko bigarren paragrafoaren lehenbiziko esaldia egokitzeko, iruzkin bat igorri du. Ondokoa dio: <<X. Videgainek ECO gizarteratzea beharrezkoa dela ikusten du, nahiz arazoak egon daitezkeen, datu-basean ageri diren toponimo guztiak ez baitaude normalizaturik -eta ez dira zertan egon behar- eta nahasteak sor baitaitezke>>. Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

A. Urrutia euskaltzainburuak beste oharren bat egin nahi den galdetu du. Hala-ekola egon ez denez, XX. Barne Jardunaldietako bilera-agiria onarturik gelditu da.

Ondoren, aztergaien hurrenkera aldatzea eta Exonomastikarekin lotura duten gaiak lehenbizi jorratzea erabaki da Osoko bilkuran. Gauzak horrela, Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar-aretora sartu da.

## **3. “Europako errege-erreginak”. Otsaileko Osoko bilkuran erabaki gabe gelditu zena erabakitzea (Bajezid / Bajazet)**

Aztergaiari ekin aurretik, A. Mujikak orain arte eginiko bidea laburbildu du.

2017ko urtarrilaren 26ko Osoko bilkuran, X. Videgainek eskatu zuen batzordeak proposatutako Bajezid I.a izenarekin batera Baiazeto grafiaz idatzia ere onartzea. Exonomastika batzordeak, aztertu ondoren, adierazi zuen ezen, Bajezid I.a grafiaz gainera beste grafia bat eskaini nahi izanez gero, egokiago litzatekeela Bajazet grafia ematea, eta ez Baiazeto eta, horretarako, arrazoiak eman zituen. Hala aurkeztu zuen otsailaren 24ko Osoko bilkuran. Orduan, P. Salaberrik adierazi zuen ea bi proposamen egitea egokiena zen eta hori erabiltzaileentzat ez ote zen nahasgarria suertatuko. Haren ustez, batzordeak proposamen bakarra egin behar zuen, ziurtasunik ez dagoenean gerorako utziz horri buruzko erabakia hartzea. Azkenean, gaia batzordera berriz eramatea eta hurrengo bilkurarako uztea erabaki zuen Osoko bilkurak.

A. Mujikak gogorarazi duenez, Exonomastika batzordeak proposamen bakarra egin zuen hasieran: Bajezid I.a. Ondoren, ordea, bi forma jartzea eskatu zion Osoko bilkurak, eta, orduan, proposamena moldatu zuen: Bajezid I.a / Bajazet I.a. Hori ikusita, Osoko bilkurak aditzera eman du ea ez ote zen hobe forma bakarra

ematea. Beraz, hasieran egin zuen proposamena berretsi du batzordeak: Bajezid I.a.

A. Urrutiak galdetu du batzordeak eginiko proposamena hobesten den. Inork oharrik egin ez duenez, Exonomastika batzordeak eginiko proposamena onartzea erabaki da Osoko bilkuran.

#### 4. “Europako errege-erreginak”. Irizpideak eztabaidatzea eta erabakitzea

A. Mujikak gogorarazi duenez, euskal entziklopedia eta eskola-materialetan, grafia egokitzea da irizpidea, erregetzako pertsonaia historikoak zein gaur egungoak izan. Euskarazko komunikabide nagusietan, irizpideak ez daude erabat bateratuta, baina, oro har, gaur egungo grafia ez aldatzea da irizpide nagusia. Berriaren irizpidea argia da: gaur egungoen grafia ez egokitzea. *Argiak* antzera jokatzeko du. EiTbren praktika ez dago hain finkatua, baina honela laburbil liteke: Espainiako eta Erresuma Batukoetan, jatorrizko grafia ez egokitzea gaur egungoetan. Gainerakoetan, grafia aldatzea. XXI. mendeko literaturan, Espainiako erregearen grafia ez aldatzeko joera erabatekoa da.

Exonomastika batzordean gaia eztabaidatu zenean, ez zen iritzi-batasunik, eta, bi aukeratarako argudioak ikusi ziren. Horregatik erabaki zen euskaltzain osoei zabalik aurkeztea, bi aukera horien artean hauta zezaten. Hala aurkeztu zen urtarileko Osoko bilkuran. Otsailean, ordea, Osoko bilkurak proposamen bakar bat egiteko eskatu zion batzordeari. Exonomastika batzordeak, martxoan egin zuen bileran, gaia aztertu eta kideen iritzia bildu zituen. Ondorioz, gehiengoa grafia egokitzearen alde agertu zen, eta horixe proposatu zion batzordeak Osoko bilkurari. Batzordeak, horrekin batera, errege edo erregina izan gabe ere, nobleziako pertsonaia ezagunei ere ponte-izena egokitzeo aukera jasotzearen aldeko iritzia eman zuen. Adibidez, Karolina Monakokoa (jatorrizko ponte-izena: Caroline).

Exonomastika batzordearen iritzia zein den entzun eta gaur egungo erabilera-datuak berrikusi ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainei iritzia emateko eskatu die. Horrela, P. Zabaleta oraingoei jatorrizko izena ez aldatzearen alde agertu da. Era berean, arau gisa ez, eta gomendio gisa ematearen alde agertu da.

P. Urbarrenek esan du joera berria jatorrizko grafia errespetatzea dela eta bera bide horrekin ados dagoela. J. Lakarra ere, grafia ez egokitzearen alde agertu da. Grafia ez egokitzeo data non jarri arazoa izan daitekeela esan du. Zailtasun hori bideratzeko, data biribil bat jartzearen alde agertu da: 1900, 1950 edo horrelako zerbait.

A. Sagarna azken aldiko errege-erreginei grafia ez egokitzearen alde agertu da. A. Arejita praktikoa azken aldikoei grafia ez aldatzea dela eta, P. Zabaletarekin bat etorritik, gomendio gisa ematearen alde agertu da. X. Kintana batzordearen iritzia-  
ren alde agertu da. J.-B. Coyos gaur egungoei grafia ez egokitzearen alde agertu da. A. Iñigoren iritziz, hartzen den erabakia gomendio gisa eta ez arau gisa eman beharko litzateke. M. Azkaratek grafia ez aldatzea eta gomendio gisa ematea hobetsi du. Beste horrenbeste adierazi du P. Salaberrik eta gaineratu du muga non jarri izan daitekeela arazoa.

Iritzia entzun ondoren, bi erabaki hartu dira Osoko bilkuran. Batetik, gomendio (eta ez arau) hau ematea: historiako errege-erreginei grafia aldatzea, baina azken aldikoei grafia ez aldatzea. Bestetik, grafia aldatzetik grafia ez aldatzera pasatzeko mugari buruz, aukera desberdinak azaldu direnez, Exonomastika batzordeari eskatu zaio aukerak aztertzeke eta horren arabera proposamen bat egiteko.

## 5. “Errenazimentuko pertsona-izenak”. Araugaia aurkeztea

A. Mujikak Errenazimentuko pertsona-izenen araugaia aurkeztu du. Azaldu du Errenazimentuan hasi zirela tokian tokiko izenak eta izenen grafia finkatzen, geroztik, ez dela aldatzen hizkuntzatik hizkuntzara. Hala ere, garai hartako pertsona ospetsu askok beren izenak latinizatu egiten zituzten oraindik. Horregatik, garai hartan, jatorrizko izenekin batera, latinezko izenak ere agertzen dira, eta hizkuntzaz hizkuntza grafia-aldaerak gertatzen dira oraindik, latinizatutako izenetatik abiatuta egokitzen baitziren, batzuetan, pertsona-izenak beste hizkuntza batzuetara.

Irizpide gisa, honako hau proposatu da: jatorrizko izena latinera aldatu zuten pertsonen kasuan, latinezko izen horri inguruko hizkuntzetan (edo hizkuntza batzuetan) grafia etxekotu baldin bazaio, euskaraz ere latinezko gainerako izenak egokitu ohi diren bezala egokitzea proposatzen da.

A. Iñigok irizpideez galdetu du, izen guztiei ez baitzaie berdin aplikatu. A. Mujikak batzordeak aurkezturiko zerrenda berriz gainbegiratu duela adierazi du.

Aurkezturiko araugaiari oharrak egiteko epea ekainaren 26an, astelehenean, amaitzea erabaki da Osoko bilkuran.

Puntu honen ondoren, bilera eten egin da eta Joseba Asiron Iruñeko alkateak euskaltzainak bere bulegoan hartu ditu.

Ondoren, bilerari segida eman zaio 11:30ean.

## **6. H letraz amaitzen diren hitzen deklinabidea. Zehaztapen bat araua argitara eman aurretik**

Aztergaien artean puntu hau jasota ez bazegoen ere, Zuzendaritzak proposatu du gaia aztertzea, argitara eman beharreko arauan antzemandako arazo bat bideratzeko. Kontrako iritzirik egon ez denez, gaia jorratzea erabaki da. A. Mujikak gaiaren testuingurua azaldu du.

2016ko abenduaren 16ko Osoko bilkuran “h letraz amaitutako hitzen deklinabidea” gaia ebatzi zen. Ondoko hau da erabakitakoa: h letraz amaitzen diren hitzak deklinatzeko, h letra kontuan ez hartzea eta h hizkiaren aurreko hitzaren arabera (bokala edo kontsonantea) deklinatzea. Era berean, Exonomastika batzordeak erabaki horren zergatia azaltzeko ohar bat idaztea eta, idatzi hori onartzeko, Osoko bilkurara ekartzea erabaki zen. Gauzak horrela, 2017ko urtarrilaren 27ko Osoko bilkuran, Exonomastika batzordeak proposatutako oharra onartu zen.

Nolanahi den, Osoko bilkurak erabakiriko testuak arazo bat sortzen du araua aplikatzeko orduan. Izan ere, hitza izen arrunta denean eta amaieran *ah* baldin badu, deklinatzean *h* letra kontuan hartu behar ez bada, hitza *a* letraz bukatutakoak bezala deklinatu behar da. Ondorioz, gauzak nola diren argitzeko, Exonomastika batzordeak araugaiari oin-ohar bat gehitzea proposatu du.

P. Zabaletari iruditzen zaio araugaiari oin-ohar bat gehitzea ez dela beharrezkoa. Beste euskaltzain batzuek, ordea, oin-ohar hori gehitzea lagungarria izan daitekeela esan dute. Horiek horrela, adostasunik egon ez denez, A. Urrutia euskaltzainburuak gaia botoetara eramateaz galdetu eta hala egitea hobetsi da, eta emaitza ondorengo hau izan da: oin-oharra gehitzearen alde 10 boto, 2 kontra eta 5 zuri.

## **7. XX. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei eginiko ekarpenak aurkeztu eta erabakiak hartu**

XX. Barne Jardunaldietan 2017-2021 aldirako ikuspegia eta helburu orokorrak, *Euskaltzaindia Ipar Euskal Herrian*, *Euskaltzaindiaren mendeurrena*, batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek 2017-2021 aldirako aurkezturiko txostenei, bai eta Barne erregelak aldatzeko proposamenei oharrak egiteko epea maiatzaren 2an amaitu zen.

A. Urrutia euskaltzainburuak Idazkaritzara oharrik iritsi den galdetu du. Argitu da jaso diren oharrak Barne erregelak aldatzeko proposamenei buruzkoak direla, M. Azkaratek eta P. Zabaletak egindakoak. Ondorioz, 2017-2021 aldirako ikuspegi eta helburu orokorrak, Euskaltzaindia Ipar Euskal Herrian, Euskaltzaindiaren mendeurrena, batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek 2017-2021 aldirako aurkezturiko jarraibideak onartu dira Osoko bilkuran.

Jarraian, Barne erregelak aldatzeko proposamenak aztertu dira, jasotako ordenaren arabera. M. Azkaratek "Zuzendaritzaren osaera" izeneko 13. artikulua osatzeko asmoz eginiko proposamena aurkeztu du. Gogoratu du gaia ez dela berria, aurreko Barne Jardunaldietan gai honi buruz hitz egin baitzen. Adierazi duenez, Barne erregeletako 13. artikulua osatzeko egiten duen proposamena Arautegiarekin bateragarria da. Bere ustez, ez da normala Zuzendaritza aukeratu behar den eguna iritsi arte hautagaiak zeintzuk diren ez jakitea, ez eta legealdian zer egin nahi den alde zurretik ez jakitea ere. Nolanahi ere, aditzera eman du gai horretan ez duela tematu nahi.

A. Urrutiak 2013ko Barne Jardunaldietan izaniko eztabaida gogorarazi du. Aditzera eman duenez, euskaltzain osoek Zuzendaritza aukeratzen den egunean bertan aurkeztu dezakete beren burua. Halaber, izendapena banan-banan egiten da eta ezin da talde gisa bozkatu, Arautegiaren eta Barne erregelaren arabera. Nolanahi ere, bere ustez, Arautegia eta Barne erregelak gaurko zein bihar-etziko beharretara egokitzeko aldaketa sakon bat egitea eta egin beharreko aldaketen inguruabarrean euskaltzainen artean ahalik adostasun zabalena lortzea garrantzi handikoa da. Horrexegatik, Zuzendaritzak Lege batzordea berriz osatzea eta egiteko horri heltzea proposatu du XX. Barne Jardunaldietan. Inguruabar horretan, komeni da M. Azkaratek egiten duen proposamena batzorde horretan aztertzea, osotasun baten barruan.

P. Zabaletak azaldu du zergatik ez datorren bat M. Azkarateren proposamena Arautegiak jasotakoarekin. Eta, horretarako, karguaren eta karguaz jabetzen den pertsonaren arteko bereizketa egin du.

Iritzi-trukearen ondoren, M. Azkaratek onartu du proposamena erretiratzea eta osatzeko dagoen Lege batzordearen aztergaietako bat izatea.

Ondoren, P. Zabaletak, eginiko proposamenak aurkeztu ditu.

60. artikuluari buruz, proposatu du xedapen iragankor bat jasotzea eta Barne Jardunaldietan proposaturiko 60. artikuluari eginiko gehikuntza ordezkatzeko. Euskaltzainburuak argitu duenez, ikertzaileek, Lan-hitzarmenarekin batera, Ikerketa

Estatutuaren arabera dute Euskaltzaindiarekin lan-harremana, eta langileek, berriaz, iazko urtearen amaieran onarturiko Lan-hitzarmenaren arabera; beraz, hor hezuramaitzen dira lan-harremanei buruzko gorabehera guztiak. Azalpena entzun ondoren, P. Zabaletak aditzera eman du proposamena erretiratzeko duela.

67.12 xedapena dela eta, Barne Jardunaldietan proposaturiko <<... parte har dezakete euskaltzain oso zein emerituek, hitzarekin eta botoarekin...>>, honela jasotzea proposatu du: <<... parte har dezakete euskaltzain osoek, emerituek barne, hitzarekin eta botoarekin...>>. Izan ere, emerituak euskaltzain osoak dira, bilere-tara joaterik ez izanez gero, ahala ezin eman dezaketela izanik berezitasun bakarra. Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

75. artikuluari buruz, Euskaltzaindiak argitara ematen dituen argitalpen guztien edukiak, ohiko prozedura erabiliz, Osoko bilkurak aztertuak eta onartuak izatea proposatu du. A. Urrutiak adierazi duenez, Euskaltzaindiak argitaraturiko lanen artean badira arauemaile izaera dutenak, bai eta ikerketa edo zabalkunde izaera duten lanak. Arauemaileen kasuan, izaera hori izateko, Barne erregeletan jasotako prozedura batzuei jarraitu behar zaie, gainerakoen kasuan, ordea, arauemaile izaerarik ez dutenez, ez diote prozedura horri segitu behar. P. Zabaletak aditzera eman du eginiko proposamena erretiratzeko duela.

92.3. xedapenean, P. Zabaletak <<edo zuzendaria>> gehitzea proposatu du. Eginiko iruzkina onartu da Osoko bilkuran.

93. artikuluan, P. Zabaletak eginiko proposamena dela eta, A. Urrutiak erdibideko zuzenketa bat proposatu du: <<Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendaria edo Zerbitzuaren arduraduna Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak izendatuko du, Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea eta Osoko bilkura entzun ondoren.

Azkue Biblioteka eta Artxiboko langileak Euskaltzaindiaren langileak izendatzeko prozedura berberaz izendatuko dira>>. P. Zabaletak aditzera eman du erdibideko zuzenketa onartzen duela. Eginiko erdibideko zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

P. Zabaletaren azken zuzenketa Azkue Biblioteka eta Artxiboari buruzkoa da. Nolanahi ere, ez dagokio Barne erregelen xedapenen bati: aitzitik, Joan Mari Torrealdaik bere sasoian eginiko proposamena aztertzea eta eguneratzea eskatzen du. Era berean, Azkue Biblioteka eta Artxiboa garatzeko zenbait iradokizun ere egiten ditu. Euskaltzainburuak adierazi du bat datorrela bere garaian eginiko txostena aztertzeko eta eguneratzeko dagoen behar larriarekin, eta gai horiei buruzko gogoeta

Azkie Biblioteka eta Artxiboaren batzordeak abiaraztea proposatu du.

XX. Barne Jardunaldietan proposatu eta inolako oharrik jaso ez dituzten aldake-  
tekin, bai eta gaur onartu direnekin, osatuko da Barne erregelen testu berritua.  
Gauzak horrela, Barne Jardunaldietako proposamenean zetozen ohar orokorrak  
kontuan hartuz, ahala eman zaio Idazkaritzari indizea, artikuluen zenbaketa eta  
hizkuntzaren aldetiko zuzenketak egin ditzan. Halaber, lan hori egin bezain fite,  
Barne erregelak eskuratuko zaizkie euskaltzainei eta esku artean erabili izan den  
Aurkitegia eta Organigrama argitalpena eguneratzeko urratsak egingo dira.

## 8. Euskaltzaindiaren Organigrama Akademikoa (2017-2021)

Euskaltzaindiaren Barne erregeletako 14. artikuluan, Zuzendaritzaren egiteko-  
tan hauxe jasotzen da: "14.7 Zuzendaritzari dagokio, batzordeetan, lantaldeetan  
edo egitasmoetan ari diren euskaltzain osoen eta gainerako kideen iritzia entzun  
ondoren, batzordekide izan daitezkeenak, dagokion Osoko batzarrean aurkeztea".  
Gauzak horrela, Idazkaritzak batzordeetako eta lantaldeetako idazkariei ohar bat  
igorri zien maiatzaren 11n, batzordeetan eta lantaldeetan aurreikusten ziren al-  
daketak jakinaraztea eskatuz.

Zuzendaritzak erantzunak jaso ondotik, Euskaltzaindiaren Organigrama Akade-  
mikoa 2017-2021 ondu du. Aurkezpena egin aurretik, euskaltzainburuak adierazi  
du batzordeen eta lantaldeen osaera Barne Jardunaldien arteko aldia alda daite-  
keela, eta, arian-arian aldaketen berri emango dela Osoko bilkuran.

E. Osa idazkariordeak Organigrama aurkeztu du. Hasteko, argitu du zerbitzue-  
tako arduradunei aipamen egiten zaien kasuan, Lan-hitzarmenean horiei egiten  
zaien aipamena gorde dela. Bestetik, lan-harremana eta Organigrama Akademi-  
koa bereizi dira, ondorioz, zerbitzuak batzordeetan arituko dira teknikari gisa.  
Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Organigraman jasotzea erabaki da. Era berean,  
batzordeen, lantaldeen eta egitasmoen zenbakien hurrenkera ere zuzendu da.

Aldaketa nagusiak ondoko hauek dira: lurraldeetako ordezkariak dagokienez,  
Arabako ordezkaria Roberto Gonzalez de Viñaspre izendatu da, eta, Gipuzkoakoa,  
berriz, Miriam Urkia. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ordezkariak berretsi  
dira.

Hiztegigintzan, "Hiztegi Batuko lantaldea" "Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak  
eta Adibideak lantaldea" izatera igaro da. Era berean, Barne Jardunaldietan aurrei-  
kusiriko lanak egin ahal izateko, "Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibi-



deak batzorde ahaldundua” eratzea erabaki da Osoko bilkuran. Batzorde ahaldundu honetan parte hartzeko gonbita luzatu dio euskaltzainburuak M. Azkarateri. Azken honek, lehenago ere halako lanetan ibilia dela eta proposamena onartzen duela aditzera eman du, beraz, kideen artean bere izena gehitu da.

Gramatika batzordean, Ane Berro batzordeko kide izendatzea eta Itziar Laka kideen zerrendan ez azaltzea proposatu du batzordeak. Batzordearen osaeran, M. Azkarateren izena falta da, beraz, honen izena gehitu da. Ondorioz, osaturik gelditu da Gramatika batzordea.

Dialektologian, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoan, Gotzon Aurrekoetxea kide izatera igaro da. Onomastikan, berriz, zenbait aldaketa egin dira. Buruorde Roberto Gonzalez de Viñaspre izendatu da, eta, Alfontso Mujika idazkari. Imanol Goikoetxea batzordearen aholkulari izatera igaro da.

Literatura Ikerketa batzordearen eta Herri Literatura batzordeen osaera hurrengo baterako utzi da.

Sustapen batzordean lurralde ordezkariak kide izatetik aholkulari izatera igaro dira. Nolanahi ere, batzordeak lurralde jakin batean ekimen bat garabidean jarri behar duenean, lurralde horretako ordezkariarekin batera lanean jardun beharko du. Horrela, Patxi Saez, Iñaki Martínez de Luna eta Santiago Larrazabal batzordeko kide izango dira. S. Alemanek argitu duenez, Nafarroatik beste kide bat izatea litekeen kontua da. Halakorik balego, proposamena egingo zaio Zuzendaritzari eta honen berri emango da Osoko bilkuran. Bestalde, Euskalkien lantaldean bi aldaketa egin dira: batetik, Maite Lakar kide izango da, eta, bestetik, Allande Socarros aholkulari izatetik kide izatera igaroko da.

Egiturazko batzorde eta egitasmoei dagokienez, Argitalpen batzordearen idazkaria Ana Toledo izango da. Era berean, Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra eta Ipar Euskal Herriko Euskara Eskuz Esku egitasmoa Organigraman jasotzea erabaki da. Azkue Biblioteka eta Artxiboaren kasuan, Joan Mari Torreal-dai ohorezko liburuzaina izatea erabaki da, burua eta liburuzaina euskaltzainburua, eta idazkaria P. Zabaleta. IKT batzordearen idazkaria M. Urkia izango da.

Barne Jardunaldietan proposatu eta, ondoren, onarturiko Lege batzordeko burua P. Zabaleta, idazkaria Xabier Kintana, eta, kideak, A. Arejita, M. Azkarate. A. Iñigo, A. Urrutia eta X. Videgain izango dira. Bestalde, egitasmo instituzionalen barruan, Euskaltzaindiaren mendeurrena batzorde suntsikorra eraturik gelditu da, XX. Barne Jardunaldietan eginiko proposamenaren arabera.

Honenbestez, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura batzordeak hurrengorako utziz, Barne Erregeletako 14.7 xedapenak dioena betez, 2017-2021 aldiko Euskaltzaindiaren Organigrama Akademikoa osaturik gelditu da. Organigrama Akademiko berria berretsi da Osoko bilkuran. Gai honekin amaitzeko, Organigrama Akademiko berria ahalik lasterren webgunean ikusgai egoteko urratsak egingo dira.

## 9. Esku artekoak

**9.1. Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxa Saria.** 2017ko XXIII. Edizioa. Zuzendaritzak Andoni Sagarna euskaltzain osoa aurkeztea erabaki du, 2017ko martxoaren 15ean eginiko bilkuran erabakitakoaren arabera.

**9.2. Marijane Minaberri ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena.** Daniel Landart Urruti euskaltzain urgazleak egingo du, Zuzendaritzak, 2017ko martxoaren 28an eginiko bilkuran erabakitakoaren arabera.

### 9.3. Hurrengo bilkurak.

Ondoko xehetasunak eman dira:

Ekainaren 12an, Baionan, Herriko Etxean, Euskal toponimia Ipar Euskal Herrian goiburupean mintegia egingo da. E. Osa idazkariordeak egitaraua banatu du euskaltzainen artean.

Ekainaren 14an, Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, euskal lurraldeetako herri-erakundeek hizkuntza politikaren eremuan dituzten asmoez eta lankidetzaz aukerez hitz egiteko, mintegia egingo da. E. Osa idazkariordeak egitaraua banatu du euskaltzainen artean.

Ekainaren 30ean Osoko bilkura egingo da Baionan, Herriko Etxean, 09:30ean hasita. Egun horretan, 11:00etan, Euskararen *Herri Hizkeren Atlasaren VIII.* liburukia aurkeztuko da.

## 10. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Euskaltzainburua,  
Andres Urrutia

Idazkaria,  
Xabier Kintana